7 UDAL ADMINISTRAZIOA URNIETAKO UDALA
Zarata eta dardaren ordenantza. Behin betiko onespena.

URNIETAKO UDALA

*Iragarkia*

Jendaurreko informaziorako legezko epea iragan ondoren, eta inolako erreklamazio edo oharrik egin ez zaionez, Umietako Udalerriko Zaraten eta Bibrazioen igorpena arautzen duen Ordenanatza, behin- betiko onetsia geratu da.

Toki Erregimenaren Oinarriak Erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.artikuluan xedatutakoa betez, aipatutako Agintarauaren testu osoa argitara ematen da.

Umieta, 2001eko uztailaren 27a. Maria Isabel Lizeaga Sagarzazu, Alkatea. (970)

(8416)

ZARATEN ETA BIBRAZIOEN IGORPENA ARAUTZEN DUEN ORDENATZA

I. IDAZPURUA

*1. art.Xedea.*

XEDAPEN OROKORRAK

Ordenantza honen xedea da ingurunearen kalitatea babestea eta hobetzea, kanpoko zein bameko guneetan sortzen diren zaratek eta dardarek eragindako poluzio akustikoaren aurrean eta, hala, mugak ezarri eta xedea betetzeko egoki iritzi diren teknikak erabaki dira; eta hala, besteak beste, jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuen Erregelamenduan eta otsailaren 27ko 3/1998, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean eta pertsonen osasunerako edo ongizatean gogaikarri edo arriskutsu izan daitekeen beste edonolako jarduera edo jarrera arautzen da.

*2. art.Atmosferaren poluzioa.*

Ordenantza honen ondorioetarako, zarata, atmosferaren elementu poluzitzaile dela iritziko da, beti ere, Atmosfera-Ingurumenaren Babespenerako 38/1972 Legean, abenduaren 22koa, eta 3/1998 Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean, otsailaren 27koa, jasotzen den eran.

*3. art.Aplikazio eremua.*

Ordenantza hau Umietako Udalerrian aplikatuko da.

Ordenantza honen esparru arautzailearen barruan sartzen <lira, ingurugiroaren egoera naturala, zaratekin eta/edo dardarekin alda dezaketen jarduera, instalazio eta portaera guztiak, arduraduna eta gertatzen diren tokia, publikoa zein pribatua, irekia zein itxia, edozein delarik ere.

Nolanahi ere, Udalak salbuets dezake Ordenantza honen betetzea ondorengo kasuetan, baina behin behineko izaeraz eta ingurune jakin batzutan bakarrik:

— Interes publiko eta sozialeko eta izaera ofizial, kultural, jai- eta erlijio-giroko eta mota honetako bestelako ekintzak.

— Edozein motatako jai tradizionalak direla-eta, antolatzen diren ikuskizun publikoak eta jolas- jarduerak; nolanahi ere, arauketa berezia izango dute.

— Denbora jakin bat iraungo duten lanek, eraikuntza, konponketa edo eraikinak eraisteko obrak, ekipo elektrogenoak, eta abar, bai eta gaueko orduetan bide publikoan egin behar diren lanak ere.

— Alarma, larrialdi edo guztien interesa tarteko sor daitezkeen egoera bereziak.

Salbuespen berezi hauek Udalak baimendu behar ditu espreski, eta eman behar duen lizentzian exekuzio-epea, ordutegia eta inguruneko inpaktua gutltiena izan dadin egokien irizten dituen gainontzeko baldintzak zehaztuko dira.

Hirigintza planeamenduko lanetan eta zarata eta/edo dardara sor ditzaketen mota orotako industriak, jarduerak eta instalazioak kokatzerakoan, izan dezaketen eragina azaldu beharko da; eta horretarako, espreski egin beharko den inpaktu akustikoaren azterketa xehekatu batean jaso beharko dira, erabakitzen diren plangintzek eta/edo hartzen diren konponbideek bizitza kalitaterik eta ingurugiroarenganako errespetu mailarik handiena eman dezaten.

Inpaktu akustikoaren azterketa hori, nolanahi ere, zenbait plan eta proiektuk berez eskatzen duten ingurugiro-inpaktuen ebaluaketaren inguruan aplikagarri den eta indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren kalterik gabe egin beharko da.

*4. art. Udal eskumena.*

Udal honi dagozkio Ordenantza honetan jasozen dena bete-tzen den zaintzea, behar diren neurri zuzentzaileak har daitezen exigitzea, mugak ezartzea, beharrezko irizten diren ikuskapenak exigitzea eta, betetzen ez den kasuetan, dagozkion zigorrak aplikatzea.

*5. art. Bateragarritasuna bestelako eskuhartzeekin.*

Ordenantza honetan ezartzen den erregimena, Administrazioko bestelako erakundeei, beren eskumenen barne, legozkiekeen eskuhartzeen kalterik gabe ulertu behar da.

*6. art.Neurriak hartzeko derrigorrezkotasuna.*

Poluzio akustikorik eragiten den ezein guneko titularrak behartuta daude aplika daitezkeen mailak betetzeko beharrezko diren neurriak hartzera, inolako errekerimendu edo norbanakoari lotutako beste ezein administrazio-egintza exigitu behar izan gabe.

II. IDAZPURUA ZARATA

KOMUNITATEAN

7. *art.Hainbat jarduera.*

Bide publikoan etajendea biltzen den zonalde publikoetan (plazak, lorategiak, eta abar) edo eraikinen barneko aldeetan, elkarbizitzak eta gainontzekoenganako errespetuak behar duen mugen barne eutsi behar zaio zaratari.

— Aurreko pasartean ezarritako agindua, batez ere, gaueko atseden orduetan -22etatik 8ak arte- sortzen den zaratari lotzen zaio eta, batez ere, gizakiak egiterakoan edo pertsonek beren jarduera zuzena dela-eta sortutako zaratari, etxabereek ateratako builari, etxetresnak eta bestelako aparailu elektrikoek eta musika-tresnei, klimatizazio eta/edo aireztapen instalazioek eta mota honetako aparailuei egiten die erreferentzia.

Jaiegunetan eta asteburuetan (ondorio hauetarako ostiralak, larunbatak eta jai-bezperak) gaueko ordutegia 23,00etan hasiko da etajaietan ez da hurrengo goizeko 9,00ak arte amaituko.

*8. art.Betebeharrak*

Aurreko artikuluan zehazten diren zaratei dagok.ionean, gaueko atseden orduetan ezingo da:

— Deiadarka aritu edo goraki hitz egin.

— Bizilagunei nekeak sor dakizkiekeen etxeko lanak edo konponketak egin.

— Propaganda, dei egiteko, abisu emateko, dibertimendu edo bestelako xederik duen ezein soinu- aparailurik erabili, -eta, oro har, bizilagunen atsedena eragotz ditzaketen zaratarik eta/edo dardararik sortu.

Etxabereak dituztenak derrigortuta daude, etxabereen portaeraren eraginez bizilagunen lasaitasuna eragotz dezakeen edozein arrazoi ek.iditeko behar diren neurri guztiak hartzera.

Beraz, ezingo dira, beren zaratarekin bizilagunengan gogaitasuna sor ditzaketen etxabereak patioetan, terrazetan, galerietan, balkoietan eta beste ezein gune irekitan eduki.

Bide publikoan eta jendea bil daitekeen espazio publikoetan ezingo dira musika tresnak edo ekipoak erabili, ez eta publizitate-mezurik egin edo zaratarik eta/edo dardararik sor dezakeen beste ezein jarduera, beti ere, espreski baimendurik

ez badago.

Bide publikoan instala daitezkeen haurrentzako joko elektrikoek, Udal honetako Ondare Sailak eman beharreko baimena izan beharko dute eta bere funtzionamendua baimen horretan finkatzen den ordutegira mugatuko da eta, era berean, ez dituzte bizilagunak gogaituko.

*9. art.Bizilagunen arteko salaketak*

Bizilagunen arteko gogaitek Jabetza Horizontaleko Legean daukate bere arauketa juridikoa. Eta Udalak, salaketarik izanez gero, bere esku izan ditzakeen frogak eta neurketak eman ahal izango dizkie interesatuei.

*10. art.Zamalanak*

Merkatalgaien zamalanak, kaxen, edukinontzien, eraikuntza materialen eta antzekoen maneiu-lanak, bizitegi-ingurutako bide publikoetan, 7,00etatik 22,00ak arte bakarrik egin ahal izango dira, beti ere, Udalak emandako baimen espresurik ez badago; nolanahi ere, arrazoi zurigarriak tarteko, ordutegi hori murriztu ahal izango dajarduera eta inguru jakin batzutan.

Merkatalgaien zamalanetan diharduen pertsonalak arreta berezia izan beharko du inpaktu zuzenik ez sortzeko eta, aldi berean, ibilbidean zehar zama lekuz aldatzerakoan dardarak sor dezakeen zarata ekiditen ahaleginduko da.

Mota honetako lanek sor dezaketen gogaita ahalik eta gehien gutxitzeko behar eta egoki diren neurri zuzentzaileak har daitezen exigitu ahal izango du eta, zehazk.i, derrigorrezkoa izango da, bere ibilbidean zarata leuntzeko, gurpil neumatikoko eskorga edo orgak erabiltzea.

Merkatal erabilerako establezimenduek (1. eta 2. kategorikoek ezik) zamalanak egiteko nahikoa azalera izango duen barneko esparru itxi bat izan beharko dute. Esparru honek, eta Ordenantza honetan zehazten diren mugak ez gainditzeko, behar adinako isolamendu akustikoa izan beharko du.

*11. art.Lanak bidepublikoan eta eraikuntza-obrak.*

Denbora jakin bat iraungo duten obrek, hala eraikuntza eta konponketa lanak: edo eraikinak: botatzekoak, nola bide publikoan egiten diren gainontzekoak:, ezingo dira egin 22,00etatik 8,00ak: arte etajaiegunetan egun osoan, beti ere Udalak: emandak:o baimen espresurik ez badago.

Etxebizitzetan edo lokalen barne egin beharreko lanak: 9,00etatik 19,00ak: bitarte egin beharko dira eta, nolanahi ere, jaiegunetan ezingo dira, zaratarik edo dardarak: direla-eta, bizilagunak: gogait ditzak:eten lanak: egin.

Zaratak: eta/edo dardarak: bizilagunengan sor ditzak:eten eragozpenak: gutxiagotzeko neurri zuzentzaile egokiak: hartuko dira.

Garbiketa publikoko eta zabor bilketak:o lanak: egiterak:oan, herritarren lasaitasuna asaldatzeko maila minimora jaisteko behar den ardura izango da. Gai honi dagokionean Udalak:, udal zerbitzu hau esleitzeko orduan, kontratazioa bere gain hartzeko balizko enpresek erabiltzen dituzten ibilgailuen hots jaurtiketaren maila baloratuko du.

*12. art.Alarmak.*

Alarma-aparailuak: edo larrialdien seinaleztapenerak:oak: behar bezala homologatuta egon beharko dute eta ezingo dira funtzionamenduan jarri arrazoi zurigarririk tartean ez badago, eta ez dute besteengan kalterik edo gogaikarritasunik sortuko.

Kanpoko aparailuak:, hala ohartarazle akustikoak: nola optikoek, harremanetarak:o telefono bat izan beharko dute eta erabak:irik egokiena bere bidez hartzeko aukera emateaz gainera, mantenimenduko enpresaren izena eta telefono zenbak:ia erakutsi behar dute.

Alarma sistema baten funtzionamendu ez-egokia gogaikarri denean bizilagunentzat eta arduraduna agertzen ez bada, edo aurreko pasartean ezarritakoa ez bada betetzen, horren berri arduradunari ezin jakinaraziz, aparailua desaktibatu egingo da eta ekintza honek ez du inolak:o kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko. Aldiz, lan hori egitearen kostua instalazioaren titularrari egotziko zaio.

Alarma sistema baten funtzionamendua ez-egokia izango da, alarma martxan jartzeko inolak:o arrazoirik egon gabe bere kabuz aktibatzen denean.

Aurreko pasartean aurrikusitako neurriaz gainera dagokion zehapena ezarri ahal izango da, beti ere, gogaita jabeari edo enpresa instalatzaileari edo homitzaileari egotz dakiokeen ekintzen ondorio bada eta, besteak: beste, sistemaren instalazio kaskarraren edo egoera onean edukitzeko eta mantentzeko lanik ez egitearen ondorio bada funtzionamendu oker hori.

*13. art.Salbuespenak.*

Ordenantza honek arautzen duenetik kanpo geratzen dira, besteak: beste honak:ook, desordena publikoak:, asaldadurak:, merkataritza zein jolas guneetan bildutak:o jendearen metak:etak: eragindakoak:, eta abar.

## III. IDAZPURUA

## IBILGAILUEN ZARATA

*14. art.Trajikoak sortutako zarataren arauketa.*

Motoredun ibilgailu guztiak: egon behar dute funtzionamendu egoera onean, hala zirkulazioan doanean nola geraldian, zarataren mailak: ez dezan indarrean dauden arautegi aplikagarriak: edo ondorengo aldak:etek ezartzen dituzten gehienezko mailak: gainditu.

*15. art.Inpaktu akustikoaren azterketa.*

Trafikorako bide berriak eraikitzeko edo egun daudenetan egin beharreko aldaketa proiektuetan, eta aldez aurreko izaeraz, inpaktu akustikoaren azterketa bat egin beharko da; eta bertan izan dezakeen eragina jaso eta egiten den plangintzarekin eta/edo hartzen diren soluziobideekin, bizitza-kalitaterik handiena eta ingurugiroarenganako errespeturik handiena izateko bidea jarriko da.

*16. art.Debekuak*

Debekaturik dago ibilgailu motoredunak eta ziklomotoreak ihes-tutu librearekin ibiltzea, hau da, motorearen eztanda isiltzeko derrigorrez behar duten gailurik gabe edo isilgailua osatu gabe, isilgailu ez-egokiekin edo narriatuekin ibiltzea.

Debekaturik dago ibilgailuen abiadura behartzea, beharrezko ez diren azelerazioen ondorioz zarata gogaikarria sortuz.

Debekaturik dago bozina edo beste ezein seinale akustiko erabiltzea hiri harnean, beti ere, kolpaketa edo istripu arrisku larrien kasuan eta larrialdi zerbitzuen eta lehentasuna duten ibilgailu publiko zein pribatuen kasuan salbu.

Nolanahi ere, lehentasun hori duten ibilgailuetako gidariek argi-seinaleztapena erabili beharko dute nagusiki, baina beti ere, seinale akustiko bereziak ez erabiltzeak gainontzeko erabiltzaileentzako arriskurik sortzen ez duenean.

Komenigarri irizten den kasuetan eta herritarren ingurugiro-kalitatea zaintzeko xedez, Udalak, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, zarata-maila altuak sortzen diren zonaldeak edo zirkulaziorako bideak babes ditzake, beti ere ibilgailuen trafikoak sortzen duenean; eta horretarako trafikoaren ordutegia, abiadura edo ibilgailu mota desberdinen zirkulazioa murrizteko arauak eman ahal izango ditu.

*17. art.Ibilgailuen kontrola.*

Gidari guztiek dute ibilgailuak egiten duen zarata maila kontrolatzeko udaltzainek egin ditzaketen frogak egiteko obligazioa. Era berean, eta ondorio hauetarako, izaera orokorreko kontrol prebentiboak egin ahal izango dira Udal honek erabaki ditzakeen programei jarraiki.

Behin dagokion proba egin ondoren, ibilgailu horri legokiokeen zarata maila 6 dB(A) edo goragokoa denean, salaketa egingo zaio, baina atzemandako irregulartasuna konpontzearen baldintzapean.

Kasu honetan, ibilgailuaren titularrak 15 lanegunetako epea izango du, sumatutako hutsuneak konpontzeko baimendutako ezein konponketa-lantegi batetan.

Irregulartasuna konpondu dela egiaztatzen denean, konponketa egin zuen lantegiak emandako ziurtagiria aurkeztuz, salaketa kenduko zaio, beti ere titularrari, arrazoi berdinagatik jarri zitzaion beste salaketarik aurretik kendu ez bazaio.

Udaltzainek ibilgailua ibilgetu dezakete, gidariak zarata-kontroleko frogak egiteari uko egiten dionean, edo ihes-tutu

librearekin, isilgailu narriatuarekin edo ihes-tutu ez-homologatuarekin dabilenean edo, arrazoia edozein delarik ere, erreferentziazko mailetatik gora 6 dB(A)-ko zarata maila ateratzen duenean; eta kasu hauetan guztietan, dagokion salaketa egingo da.

Ibilgailuan aurkitutako hutsegiteak direla-eta ibilgetzen denean, Udaltzainek ibilgailuaren zirkulaziorako baimena edo lizentzia bahituran har dezakete, bere ordez, gutxienez ibilgailuaren matrikula eta lehen matrikulazioko data jasoko duen agiri bat emanez. Kasu honetan, ibilgailuaren titularrak: 1O lanegunetak:o epea izango du aurkitu zaizk:ion hutsuneak konpontzeko, eta hori baimendutak:o Ibilgailuen Azterketa Teknikoko (IAT) edo baimendutak:o konponketak:o edozein lantegitan egin ahal izango du, baina beti ere, narriatutak:o elementuari edo multzoari mugatuko zaio konponketa.

Salaketaren jatorri izan den hutsegitea konpondu dela egiaztatzen denean, ikuskaritza teknikoaren txosten ofiziala aurkeztuz edo berrikuskapena egin zuen lantegiaren ziurtagiriaren bidez, bahituran hartu zitzaion zirkulazioko baimena edo txartela itzuliko zaio.

Aipatutak:o epea, ibilgailua berrikuskapena egitera eraman dela egiaztatu gabe iragan ondoren, Udaltzainek, dagokion lege-hausketaren ondorioz egin behar duten salaketaren kalterik gabe, ibilgailua zigilatu ahal izango dute edo, zuzenean, bide publikotik atera eta udal ibilgailu-gordailura eraman.

Ibilgailuak egiten duen zarata maila egiaztatzeko frogak egiteari uko egiten dionean gidariak, Udaltzainek ibilgailua gordailura eramango dute.

Gidariak ibilgailua udal-gordailutik atera dezan, aldez aurretik, zarata maila egiaztatzeko egin behar zaion froga egin beharko da.

*18. art.Ziklomotore eta motozik/etetako frogak.*

Mota honetak:o ibilgailuek ateratzen duten zarata kontrolatzeko, udaltzainek kontrolak jarriko dituzte bide publikoan, eta ezarritak:o mugetatik gora egon daitezkeen ziklomotoreak eta motozikletak: geraraziko dituzte.

Ziklomotore eta motozikleta hauek ateratzen duten zarata modu erraz batean eta bide publikoan egiaztatzeko, froga ibilgailua geratuta dagoela egingo da eta dagokion eranskinean jasotzen den moduan egingo.

Neurketaren emaitza ondorengo erreferentzia mailekin konparatuko da, beti ere cm3-etan adierazitak:o zilindradaren arabera.

*Balorea lbilgailua Zilindrada dB(A):*

Ziklomotoreak :<;; *50* e.e. 92 :<;; 80 e.e. 96.

Motozikletak > 80 e.e. y :<;; 175 e.e. 98 > 175 e.e. 10l.

*N.* IDAZPURUA ERAIKUNTZA

BERRIKO ERAlKINAK

*19. art.Eska daitezkeen betekizunak.*

Eraikin guztiek bete beharko dituzte Eraikuntzarako Oinarrizko Arauan jasotzen diren eraikinen baldintza akustikoei buruzko zehaztapenak, eta/edo Eraikuntzaren Antolamendurako azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, zarataren aurka babesteko bestelako betekizun guztiak edo berau alda dezakeen beste ezein.

Era berean, kontutan izan beharko dira Eraikuntzaren Ordenantza Osagarriak eta bestelako hirigintzako udal arauak.

Udalak eraikin orok bete behar dituen baldintza akustikoak betetzen direnaren ziurtagiriak exigi ditzake behin obra zibila arnaitu eta «tokian bertan», eraikuntzaren lehen okupaziorako baimena eman aurretik.

Eraikinetako ur, aireztapen, klimatizazio, garraio eta elektrizitateko instalazio eta ekipo komunitarioak, zarata edo dardara sor ditzaketenak, alegia, Eraikuntzarako Oinarrizko Arauaren, eraikinetako baldintza akustikoei buruzko baldintzak, edo ordezka dezakeen beste baten indarrez exigi daitezkeen betekizunen arabera instalatuko dira.

## V IDAZPURUA

## JARDUERA SAILKATUAK

*20. art.Eska daitezkeen betekizunak.*

Zaratarik eta/edo bibraziorik sor ditzaketen jarduerak edo elementuak bere baitan hartzen dituzten esparruetan jartzen diren eraikuntza, insonorizazio edo dardaren kontrako elementuek isolamendu balio egokiak izan beharko dituzte eta, ondorioz, kanpora zein etxebizitzen edo beste lokal edo barrutietara jaurtikitzen den zarata edo dardarak ez dute Ordenantza honetan zehazten diren mugako balioak gaindituko.

Horretarako, mota horretako lokalek, beharrezkoa izango balitz, behartutako aireztapen sistema bat izango dute, edozein bao edo kanpora ematen duen leiho erabat ixteko aukera emango duena zarata eta/edo bibrazioak sortzen duen jarduerak irauten edo elementuak funtzionamenduan dauden bitartean.

Industria jarduerak (l. kategorikoak ezik) ostalaritzakoak eta ikuskizun publikoetakoak (edaritegiak, kafetegiak, jatetxeak, elkarte gastronomikoak, pubak, dantzalekuak, eta antzeko jarduerak}, merkataritzakoak (supermekatuak, harategiak, arrandegiak, okindegiak, eta abar), jolas-erabilerakoak (gimnasioak etajoko eta aisialdirako aretoak, bilarrak, futbolinak, mini-golf eta antzeko jarduerak dituztenak) musika edo dantza akademiak, musika-ekipoa izateko edo ikuskizunak antolatzeko baimenak dituztenak eta, oro har, arau honetan jasotzen diren zarata mailatik gorako neurriak inpaktu bidez sor ditzaketenak eta, aldi berean, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen direnak, lurzoru flotantea izan beharko dute, zoruarekin edo furjatuarekin eta kokatzen diren eraikineko egiturako bestelako elementuekin inolako loturarik izan gabe.

Ordenantza honen ondorioetarako, musika-ekipoa da, irrati, telebista, hari musikal edo antzekoak diren hauetatik desberdinak diren bestelako soinu-erreprodukziorako aparailuak.

*21. art.Isolamendu akustikoa.*

Bizilagunak dituzten eraikinetan, zarata eta/edo dardara gune izan daitezkeen instalazio edo jardueren eta ondoko esparruen artean insonorizaziorako tratamendu egoki bat egongo da eta, arau orokor gisa, eguneko ordutegian (8,00etatik 22,00ak arte) burutzen diren jardueretan airetiko zarataren isolamendu minimoa 55 dB(A)-koa izango da eta 65 dB(A)- koa gaueko ordutegian (22,00etatik 8,00ak arte) burutzen diren jardueretan, bai eta inoiz edo aldian behin burutzen bada ere jarduera hori.

Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren kategoriaren bame sartzen diren jarduerak ondoren zehazten den isolamendu minimoa izango dute airetiko zarataren aurka.

a) Ostalaritza eta ikuskizun publikoetako lokalak:

—55 dB(A) jatetxearen jarduera izan gabe elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak saltzeko baimena duten lokaletan eta instalazioetan (1. multzoa).

--65 dB(A) jatetxe jarduera burutzeko edo edari alkoholdunak saltzeko baimena duten lokaletan eta instalazioetan (2. multzoa).

—70 dB(A) musika ekipoa izateko baimena baina dantzarako pistarik ez duten lokaletan eta instalazioetan (3. multzoa).

—75 dB(A) musika ekipoa eta dantzarako pista edo ikuskizunak antolatzeko baimena duten lokal eta instalazioetan (4. multzoa).

b)Joko-aretoak:

—65 dB(A) aisialdiko aretoetan (1. multzoa).

—65 dB(A)joko-aretoetan (2. multzoa).

—75 dB(A) bingo-aretoetan (3. multzoa).

—75 dB(A)joko-kasinoetan (4. multzoa).

Kirol eta aisialdiko jarduerak burutzen diren lokalek, hala nola, akademiak, gimnasioak, aisialdi eta gizarte arloko zentroak, jubilatu-elkarteak eta abar, edota ikastetxeak, zein kantu, dantza eta/edo musika akademiak airetiko zarataren aurkako isolamendu minimoa 65 dB(A)-koa izango dute, beti ere, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen badira.

Musika edo giza ahotsa goratzeko aparailuak instalatzen diren lokalek, zinemak, antzokiak, auditorioak, hitzaldi-aretoak, erlijio-gurtzarakoek, eta abar, airetiko zarataren aurkako isolamendu minimoa 70 dB(A)-koa izango dute, beti ere, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen badira.

Aurreko ataletan jasotzen ez diren jarduerei gehien egokitzen zaien isolamendu akustikoa exigi aba! izango zaie, beti ere,jarduera motaren eta funtzionamendu moduaren arabera, eta onartzen diren mugak ez gainditzeko xedez.

Frogen bidez lortzen den zaraten jaurtikipen maila, dagokion eranskinean zehazten den eran, ezingo da 40 dB(A)-tik gorakoa izan goiko edo aldamenetako etxebizitzetan.

Artikulu honetan exigitzen diren isolamendu baloreak, hau da airetiko zarataren eta inpaktuen zarata-mailari aurre egitekoak, etzebizitzak izango ditu erreferente beti.

Aipatutako jardueren inguruetan bestelako eremuak egongo balira eta beren erabilera etxebizitza izan gabe beste bat badute, isolamendu akustikoaren beharra 1O dB(A)tan jaitsiko da, ondoko lokal horren erabilera egoitzakoa ez bada (eskailera-kaxa, atariak, atarteak edo sarrerako korridoreak) edo egoitza erabilerako ingurutan eraikinaren parte horiek guztienak direnean eta guztientzako zerbitzuak jasotzen dituzten lokalen edo bameko patioen kasuetan; eta 20 dB(A)tan murriztuko da kanpoko jarduerak eta bamekoak ez diren patioak bereizten dituzten filtxadetan.

Era berean, kasu hauetan eta neurketa bidez lortutako inpaktuen zarata mailaren exigentziari 1O dB(A) gehituko zaizkio.

Zarata eta/edo <lardara sortzen duen jarduera burutzen den lokalak inguruan, bertan sortutako zarata eta/edo <lardara atzeman dezaketen beste batzuk baditu, airetiko isolamendu akustikoaren eta inpaktuen zarata-maila, inmisio-egoera txarrenean dagoen eremu harekiko exigituko da.

Nolanabi ere jarduera hauen kasuan, isolamendu akustikoaren obrak arnaitu orduko eta lokalaren dekorazioari ekin aurretik, dagokion eta lortu nabi den isolamendu akustikoko egiaztapena egiteko gomendioa egiten da, beti ere eman zaion tratamenduaren eraginkortasuna egiaztatzeko eta, behin obra amaitu ondoren aldaketak egin beharrak sortzen dituen arazoak ekiditeko xedez.

Exigitutako isolamendu akustikoa lortzeko erabili behar diren materialek Eraikuntzako Oinarrizko Arauetan finkatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, hau da, eraikinen suteen aurkako babespen baldintzak edo/eta ordezka dezakeen beste ezein arauko baldintzak.

Zarataren jaurkiteta-fokoa elementu jakin bat denean, exigitutako isolamendu akustikoa aipatutako fokora mugatu aba! izango da, beti ere neurri horiekin ezarritako zarata-inmisiorako mugak betetzen badira.

Exigitzen diren isolamendu balioak, zarata eta/edo <lardara sor dezaketen lokaletako aireztapen bao eta mekanismoei ere lotzen zaizkie, hala neguan nola udan.

Nolanabi ere, isolamendua ezarritako balio minimoetara egokitzeko ardura izango duen subjektu pasiboa, zarata- iturriaren titularra izango da.

*22. art.Bertaratzen direnen babesa.*

lkuskizun publiko zein aisialdiko jarduerak burutzen diren establezimenduetako erabilera publikoko zonaldeetan ezingo da inoiz 90 dB(A)-ko soinu-maila gainditu; beti ere sarbideetan ondorengo ohar hau jasotzen ez bada:

«Loka! honen barman luzaroan egoteak, kalte iraunkorrak sor ditzake entzumenean».

Oharra, ondo ikusteko modukoa izango da bai dimentsioz, bai argiztapenez eta bi hizkuntzatan -euskaraz eta gazteleraz- idatzita egongo da.

*23. art.Bizi/agunen babesa.*

Ostalaritza eta ikuskizun publikoko jarduerak, soinu erreprodukziorako ezein motako aparailuak dituztenak, (irratia, telebista, hari musikala, musika-ekipoa, eta abar) jardueran izan daitekeen soinu-mailaren sistema mugatzaile bat izan beharko dute, ezarritako mugak betetzen direla bermatzeko xedez.

Sistema mugatzaile horrek, Ordenantza honetan ezarritako zarata-inmisiorako mugak gainditzea, hala bameko aldean nola kanpokoan, ezinezkoa egiten dela berrnatu beharko du.

Aparailuaren soinu-maila maximoaren muga izango da, jarduerari berez etxebizitzekiko dagokion airetiko zaratarako isolamendu akustikoaren indizea 20 dB(A)tan gehitu ondoren ateratzen dena; beti ere gai honetan aplika daitezkeen goragoko xedapenek ezartzen dituzten mugak aplikatzearen kalterik gabe.

Musika-ekipoa izateko baimena duten jarduerak, zortzi hereneko bandetako igorpen mailara mugatu beharko dira. Kasu honetan, lokalean gainditu ezingo den soinu-maila orokor horretaz gainera, ekipoaren mugapena finkatuko da, lokalaren isolarnendu-kurbari, zortzi hereneko banda bakoitzean, ondorengo kurba gehituz ateratzen dena, inola ere ezingo dela gainditu kontutan izanik:

| *HZ* | *dB* |
|---|---|
| 50 | 49,6 |
| 63 | 43,4 |
| 80 | 38,7 |
| 100 | 34,4 |
| 125 | 30,7 |
| 160 | 27,3 |
| 200 | 24,4 |
| 250 | 21,3 |
| 315 | 19,0 |
| 400 | 16,5 |
| 500 | 14,5 |
| 630 | 12,8 |
| 800 | 11,3 |
| 1000 | 10,0 |
| 1250 | 8,9 |
| 1600 | 7,7 |
| 2000 | 6,6 |
| 2500 | 5,7 |
| 3150 | 4,9 |
| 4000 | 4,2 |
| 5000 | 3,5 |

Udalak, aurreko pasartean jasotzen ez den edozein jarduerari exigitu ahal izango dio, beti ere komenigarri irizten duen kasuetan, erreprodukzio aparailuaren mugapena egitea.

Ikuskaritza lanetan eta musika-ekipoa duten jardueren kontrola eraginkorragoak izan daitezen, Udalak erregistro sonometrikoko sistema bat bertan ezartzera behar dezake, denbora jakin batean jardueraren funtzionarnenduari buruzko datuak jasotzeko, beti ere inoiz ez 15 egunetatik beherako epean.

Sistema hau mantenimendu eta kalibrazio plan baten barne sartu behar da eta urtero egiaztatu.

*24. art. Neurri zuzentzaileak.*

Zarata kanpora zuzenean ez ateratzeko xedez, musika-ekipoa duten establezimenduen irteera guztietan, larrialdikoetan

salbu, derrigorrezkoa izango da itxiera automatikoko ate bikoitzeko instalazio finko bat izatea, atarte hermetiko bat osatuz, 3. eranskinean zehazten denaren arabera.

Atarteko ateak zabaltzerakoan hartuko duten azalera, gutxienez 1,20 metroko erradioak ematen duena izango da, eta era berean, atartearen diseinua, Sarbidea Sustatzeko 20/1997 Legearen garapenetik sortutako Arau teknikoetan ezarritakoari egokituko zaio, hau da, hiri.esparruetara, eraikinetara, garraio-bideetara eta infurmazio eta komunikazio sistemetara heltzeko baldintzak ezartzen dituzten arauetara.

Bi ateek izango dituzte ixteko malgukiak, beti ere bietako bat bakarrik egon dadin irekita ezein unetan eta, nagusiki, plano perpendikularretan kokatuko dira.

Aipatutako ateek jarduerari exigitutako airetiko zarata minimora iristeko isolamendua bermatu beharko dute, eta era berean, jartzeko garaian, ate, marko eta/edo zoruan zirrikiturik edo zulorik ez izatea begiratuko da ez dadin zaratarik kanpora atera; eta horretarako, egokia izan daitekeen juntura mota erabili beharko da.

Neurri bera hartuko da kanpoko aldean dagoen zarata mailak ezarritakoa gainditzen duenean, jaurtiketa-iturria edozein dela ere. Ondorio hauetarako nemketa lokalaren kanpoko aldean egingo da, atearen aurrean eta irekita dagoela, mikrofunoa, gutxi gorabehera atetik metro batetara eta zorutik 1,2 eta 1,5 metroko altueran. jarriz.

Musika ekipoa izateko baimena duten jarduerek kanpora ematen duten bao guztien itxitura hermetikoa bermatu beharko dute. Neurri hau betetzea derrigorrezkoa izango da, baita ere, elkarte gastronomikoetan, sagardotegietan eta bizilagunak dituzten eraikinetan burutzen diren antzekoetan.

25.2 artikuluan aurrikusitako salbuespena salbu, inoiz ez dira onartuko leiho erabilgarriak.

Artikulu honetako l. eta 2. pasarteetan ezarritakoak ukitzen ez dituen eta gauez irekita dauden jarduerek ateak itxi beharko dituzte eta, hala badagokio, leihoak, gaueko 22,00etan.

Bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen diren merkataritza, industria eta aisialdiko erabilerako jarduerek, lokalaren bame, biltegi gisa erabiltzeko eremu bat izan beharko dute, jardueraren ezaugarriei egokituko zaiena. Hala, bada, debekaturik dago eraikinetako guztien patioak jardueraren biltegi gisa erabiltzea, bai eta guztien elementuak zeharkatuz dauden lokalak xede honekin erabiltzea, beti ere, planeamenduak berak baimentzen duenean ezik (kasu hauetan, ezarritako mugako mailak gaintzea eragotziko duen isolamendu akustiko egokia jarri beharko da).

*25. art.Terrazak eta kanpoko mahaiak.*

Jarduera nagusiak baimenduta daukan ordutegia edozein izanik ere, terrazen eta kanpoko mahaien erabilera Udal honetako Ondarearen Atalak baimentzen duen ordutegira mugatuko da, beti ere, eta bere kokapenaren ezaugarri partikularrak direla-eta, ordutegia murriztu ahal izango da, bizilagunentzat gogaikarria izan daitekeen zarata sortzen denean.

Musika ekipoa izateko baimena eta terrazak edo kanpoan mahaiak jartzeko baimena duten establezimenduek, ezingo dute ekipoa erabili mahaiak eta aulkiak terrazan dauden bitartean eta jardueran musika ekipoa martxan edukitzeko ordutegiaren bame, leiho-mostradorea itxita egon beharko du eta, aldi berean, jarduerari exigitzen zaion isolamendu akustiko minimoaz homituta egon beharko du.

## VI. IDAZPURUA

## MAKINERIA ETA JARDUERA-INSTALAZIOAK

*26. art.Eska daitezkeen betekizunak.*

Ordenantza honetako atal desberdinetan ezarritakoaren kalterik gabe, jardueretan erabiltzen den makineria eta instalazio osagarriak, hala nola klimatizazio, aireztapen edo hozte-sistemak, ate metalikoak, kargagailuak eta/edo beste ezein motako makineriak ezingo dute gertuen dituzten etxebizitza edo lokaletara igorri, Ordenantza honetan ezarritako zarata eta/edo dardarako inmisio-balio maximoak.

Kea hustutzeko eta/edo aireztapen behartuko sistemak dituzten lokalen kasuan, behar duten makineria eta, kasua balitz klimatizazio-aparailua, lokalaren beraren bameko aldean kokatu beharko da.

Haizea kanpora ateratzeko sistemek ez dute ezarritako zarata maila maximotik gorako zaratarik aterako eta, horrenbestez, dagozkion elementu zuzentzaileekin homitu beharko dira.

Zarata eta/edo bibrazioa eraikinaren egituratik barrena zabal ez dadin, ondorengo ataletan ezarritakoa hartuko da kontutan:

—Edozein gailu mugikor kontserbazio egoera onean edukiko da, batez ere, mugitzerakoan leun ibiltzearekin loturik dagoen elementu guztia. Ez da makinen eta berauen euskarrien ainguraketa zuzenik onartuko mehelinetan edo zutabeetan. Zoruetan, sabaietan edo esparruak elkarrengandik bereizteko forjatuetan zintzilikatzea baimenduko da, baina dardararen kontrako gailu egokien bidez egiten bada.

—Musika ekipoetako bozgoragailuak sabaian, paretetan edo zutabeetan zintzilikatzen badira, dardararen kontrako gailu egokiekin ainguratu beharl<:o dira.

--Garajeetako ateak eta merkataritzako, industriako zein aisialdiko jarduerak burutzen diren lokaletako pertsiana metalikoak, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen direnean, eraikinaren egiturari ainguratuko zaizkie baina dardararen kontrako gailu egokiekin.

—Abio gogorreko makinak, kolpeka edo kolpaketa zakarrekin Jan egiten dutenak edo mugimendu altematiboko gailuak dituzten makinak, lurzorutik eta eraikinaren egituratik isolatutako edo bereizitako bankada independenteetan kokatuko dira, dardararen kontrako gailu egokiez homiturik.

—Mugimenduan dabiltzan gailuak dituzten makinekin zuzenean lotutako hodiak, berauetan fluidoa era behartuan dabilenean, makinek sortzen duten dardararen transmisioa eragotziko duten banaketa gailu elastikoak izango dituzte. Hodietako bridak eta euskarriak dardararen kontrako elementuak izango dituzte. Eta, era berean, hodiak pasatzeko honnetan eta paretetan egiten diren pasabideetan dardararen kontrako materialak erabiliko dira.

—Fluidoen zirkuituetan, balbulen eta kanilen sekzioa eta antolamendua, igarotzen den fluidoak inguruko egituretan zaratarik edo bibraziorik ez transmititzeko modukoa izango.

Makineriaren instalazioa zurituko da, jarduera lizentzia lortzeko espedienterako derrigorrez aurkeztu behar den instalazio-proiektuan jasoko diren kalkuluen bidez.

## VII. IDAZPURUA

## ERREGIMEN JURIDIK.O ADMINISTRATIBO OROKORRA

*27. artAdministrazio-eskumena. Ikuskapen eta kontro/ gaitasuna.*

Umietako Udalari dagokio Ordenantza honetan ezarritakoa betetzen den kontrolatzea eta, bere eskumenen barne, jarduerei eta bereziki, jarduera sailkatuei buruzko gainontzeko arautegia betetzen den zaintzea; exigitzea, era berean, ofizioz zein alde baten eskariz eta gai honen inguruan, bizilagunen babeserako beharrezko diren neurri prebentibo, zuzentzaile edo konpontzaileak har dadin; agintzea, bide batez, egoki irizten dituen ikuskapen guztiak, eta jardueren funtzionamendu egokia egiaztatzeko bere iritzian behar dituen egiaztagiri guztiak exigitzea; behar diren aginduak ematea, urratutako legaltasuna bete dadin; eta zigor ahalmena erabiltzea, arau hau edo Udal honi zigortzeko ahalmena ematen dion gai bereko beste arauak urratzen direnean.

*28. art.Lizentziak.*

Zarata edo dardara delata gogaita edo ezrosotasuna sor dezaketen titularitate publikoko zein pribatuko instalazio, establezimendu, industria, biltegi eta bestelako jarduerak, Ordenantza honetan xedatzen diren betekizunetara egokitu beharko dira.

Aurreko pasartean aipatutako jarduerak, eta martxan jarri aurretik, dagokien jarduera eta irekitze lizentzia lortu behar dute, derrigorrezkoa baita, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren eta berau garatzen duten arautegiaren arabera. Nolanahi ere, lizentziaren izapideak egiteko proiektu bat aurkeztu beharko da, gai den teknikari batek egina eta dagokion elkargo ofizialak bisatutakoa, zarata eta dardararen prebentzioari buruzko atal berezi bat jaso beharko duena.

Betekizun berdinak eskatuko dira egun funtzionamenduan dauden jardueren zabalpen edo erreforma kasuetan, baina beti ere arau hau indarrean jartzen den unean proiektatzen direnak baimentzeko unean.

*29. art.Lizentzietako betekizunak.*

Zarata eta/edo dardara maila delata, pertsonentzako edo bere eraginpeko inguruan dauden ondasunentzako edozein motatako arriskurik edo gogaitik sor dezakeen edozein motatako jarduera, instalazio, makina, aparailu, elementu edo bestelako obrak egiteko eskaeretan, kasu bakoitzean exigituko den dokumentazioarekin hatera, azterketa akustiko bat jasoko da. Azterketa hau akustikan gai den eta kreditatuta dagoen teknikari batek edo enpresa espezializatu batek egin beharko du eta bertan, zarata eta/edo dardara transmititzeko gai diren iturriak jaso eta, aldi berean, Ordenantza honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatuko da dagozkion kalkuluen bidez.

Akustikari buruzko azterketak, gutxienez, ondoko edukiak jaso eta garatu behar ditu: a)Zarata

eta/edo dardara sor dezakeen edozein gairen identifikazioa eta deskribapena.

Lokalean instalatu behar den soinu-aparailu motaren deskribapena, jaurtiki dezakeen soinu-maila global maximoa adieraziz.

Sortutako zarata/dardara motaren deskribapena: Etengabea, oldartsua, behin-behinekoa, tonu garbien osagai entzungarriekin, behe-frekuentzietako jaurtikipena, eta abar. Izan dezakeen funtzionamendu modua edo moduak eta ordutegia. Aurrikusitako soinu-jaurtikipenaren mailak (eta nagusiki zortziko hereneko bandetan) bai neurketa errealen bidez ateratakoak, bai datu bibliografiko egiaztatuekin, fubrikatzaileak aitortutako datuekin edo balioespen arrazoituekin ateratakoak.

b) Zarata eta/edo dardara iturriak kokatuko diren lokalaren deskribapena eta bere kokaeran erasan ditzakeen etxebizitza eta/edo lokalen aldean.

e)Aplikagarri diren ebaluaketa irizpideak, ondorioak jasan ditzaketen zonaldeen etajarduera motaren arabera.

d) Espero diren soinu inmisioko mailen kalkulua, egiaztatutako jaurtikipen espektroaren eta aurrikusitako indargabetze akustikoaren arabera. kalkulu hori egiteko onartutako metodo matematikoak erabiltzea onartuko da.

e) Transmisioa indargabetzeko beharraren balorazioa, aurreko datuen arabera.

f) Neurri zuzentzaileen diseinua (isolamendu akustikoa, zarataren indargabetzaileak, eta abar) eta deskribapen zehatza, bai eta zortziko hereneko bandetan oinarritutako kalkulu zurigarriak.

g) Proiektuan zehazten den eran, jarduera funtzionamenduan jartzen denean Ordenantza honetan ezarritako inmisio balioak ez direla gaindituko zuritzea.

h) Inpaktuko zarata izango balitz, bere jatorriaren deskribapena, transmisioaren balorazioa eta konponbideen deskribapena, transmisioa ekiditeko xedez.

*3O. art.Obra amaierako egiaztapena.*

Jarduerari edo instalazioari irekitzeko lizentzia emateko edo funtzionamenduan jartzeko derrigorrez bete beharreko betekizuna da, dagokion obra-amaierako egiaztapena aurkeztea. Egiaztapena gai den teknikari batek sinatu eta dagokion elkargo profesionalak bisatutakoa izango da eta, bertan, egindako obra onartutako proiektuari, aplikagarri zaion eta indarrean dagoen araudiari eta ezarritako neurri zuzentzaileei egokitzen zaiola eta jarduera lizentziako gainontzeko betekizunak betetzen dituela kreditatzea, dagozkion baimenak izanik eta egindako instalazio desberdinak zerbitzuan jarriz.

Era berean, Ordenantza honetan ezarritako prozedurari jarraiki, gai den teknikari batek edo ENAC (Akreditazio Entitate Nazionala) akreditazioa duen laborategi espezializatu batek egindako neurketa batekin zuritu beharko da, ezarritako jaurtikipen eta inmisio-baloreak eta proiektuan zehaztutakoa betetzen dela.

Bestalde, soinu-mailaren elementu mugatzaileak instalatzea exigitzen diren jardueren kasuan instalazioa egin duen teknikari batek sinatutako txostena aurkeztu beharko da; eta txostenean erabilitako sistema mugatzailearen ezaugarriak eta eragina duen ekipoarenak, eta egindako mugapenaren baldintzak aurkeztu beharko dira, bai eta, isolamendu akustikoaren arabera (zortziko hereneko bandetan horrela behar izanez gero) egindako mugapenaren baldintzak ere

*31. art.Teknikari gaituak.*

Udal honek akustika-gaietan informatzen edo proiektuak egiten dituzten teknikariei gai honi buruzko heziketa nahikoa egiaztatzea exigi diezaieke.

Neurketa akustikoak egiteko, 4. eranskinean eta neurketa eta ziurgabetasun mailaren arabera, gaikuntza maila tekniko desberdinak ezartzen dira.

*32. artA/dez aurreko egiaztapena.*
